

ZENTROKO BATZORDEEN URTEKO TXOSTENA

EUSKARA BATZORDEA

2022 /2023 EKINTZAK

Batzordearen aktetan informazio gehiago eskura daiteke.

- Euskara batzordeko ekimenak, Fakultateko Plan Estrategikoarekin lerrokatu dira. Hauek dira konkretuki:
 - Euskarazko baliabide eta trebetasunen erabilera sistematizatzea eta optimizatzea
 - 5.1.1 Fakultatearen Euskara Plana eguneratzea
 - 5.1.2 BIKAIN ziurtagiria ezartzeko lan egitea
 - 5.1.3 Euskarara itzulitako irakats materiala identifikatzea, multzokatzea eta ordenatzea
 - 5.1.4 Gizarte Langintzako graduako practicumeko instruktore elebidunen datu basea eraikitzea
 - 5.1.5 Hizkuntzen erabilera trebetasunei buruzko tailer bat antolatzea graduako lehen mailako ikasleentzat
- Euskara planaren zenbait ekimen martxan jarri dira:
 - Euskaraldian parte hartzea Fakultate bezala. Azaroaren 18tik abenduaren 2ra lehiaketatxo bat jarri zen martxan. Zentroko zenbait guneetan, **“Zer idatzi zuten Irulegiko eskuaren egileek?”** galderari erantzun ahal izateko argibideak jarri eta bi sari banatu ziren, gune bakoitzeko (Egoitza eta Atala). (50 € bi opari-txartel, mezu irudimentsuenentzat eta 20 € lau opari-txartel, partehartzaile guztien artean zozketatu ziren).
 - Euskararekin harremana duten berri-formakuntza-ekimenak irakasleen artean zabaltzea.
- Beste ekintza batzuk:
 - “Egunean behin” lehiaketa martxan jarri da. 18 ikaslek hartu dute parte.
 - Berria egunkariko Ainize Madariagak 2022ko azaroaren 14an, Animazio soziokomunitarioa irakasgaiaren barruan, Gizarte Langintza graduan, **‘Komunitatea hats bahiturik: hiltunaren trauma, diagnosia eta paliatiboak’** bere lanaren inguruko aurkezpena eskaini zuen, elkarriketa eran.

2023/2024ko PLANA

2023/24 ikasturterako aurreikusitako ekintzak:

- Euskara plana eraberritzea, EHUko plana kontuan izanik.
- Ekintzak martxan jartzeko Plan operatiboa zehaztuko da, lerro nagusi gehi ekintza zehatzekin.
- Lehenengo mailako ikasleei hizkuntzen inguruan ematen zaien informazioa doitu eta mintegi-tailerra egin.
- Bikain ziurtagiria lortzeko lehen pausuak emateko sostengu ematea.

Amaia Inza Bartolomé

Batzordeburua

2023ko uztailaren 12an